

## Euskaren Egunean

2008/12/05

Eskolan langile eta ikasleen arteko olinpiadak egin ziren. Barre algarak, pike sanoa, elkar laguntza, giro jatorra... guztia **euskarari behar duen bultzadaxoa emateko**.

200 parte-hartzaitetik gora elkartu ginen Eskolako frontoian, giro ezin hobean. Helburua, ikasle zein langileengan euskararen inguruan kontzientzia sortzea eta euskararen erabileran aurrera egiteko indarrak batzea izan zen. Eguraldiak ez zuen lagundu, hotza, euria...baina, euskal musikak, trikitilariak eta jokoek giroa berotu zuten.

Hiru jokotan hartu zuten parte aurkeztu ziren 14 taldeek: arrautza eta goilara lasterketan, taula jokoan eta sokatira-lehian. Ikusgarria izan zen, azken honetan, It Crowd taldeak eta Hau hola izaten dek taldeak jokatu zuten finala, ze tentsioa!

Bi sari banatu ziren, bata Olinpiaden irabazleei eta bigarrena lelo onena aurkezten zuen taldeari. Garaile nagusiak Mekanikoak taldekoak izan ziren, irabazle arrautza eta goilara lasterketan, irabazle taula jokoan, irabazle tortilla patata txapelketan eta lelo onenaren saria ere eurek jaso zuten. Proposatutako leloa honako hau izan zen: **Hitzez hitz, egunez egun, Eskola euskaldun**

